


Biltzalea: Antonio Zavala, S. I.

**A Z P E I T I K O
P R E M I Y O A R E N
B E R T S O A K**

(1893-1895)



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-902

10617

AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK

(1893-1895)

AUSPOA LIBURUTEGIA

27

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa
Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala. S.J.
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta Atzerrian: 275 peseta
Ongilleak: 350 Ale bakarra: 25

AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK

(1893-1895)

(Antonio Zavala, S. I.: bilduma ta argibideak)

AUSPOA LIBURUTEGIA

Depósito Legal S. S. 931/63
Número Registro 1745/63

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

A R K I B I D E A

Azpeitiko euskal festak	9
Ondorengoak diotena	17
Bertso Berriak: "Azpeitira dirate..." (Udarregik)	22
Bertso Berriak: "Bertsuak ipintzera..." (Pello Errotak ordañetan jarriak)	35
Bertso Berriak: "Kargu egin biayot..." (Udarregik)	46
Zizurkillen 1894-garren urtian Bernardo Otaño-k jarriak bere artian: "Usurbil aldetikan..." (Jose Bernardo Otañok)	53
Pedro Maria Otaño-ren bertsoa	60
Bertso Berriak: "Azpeitiko juntaera..." (Udarregik)	61
Miel Anton Pello-ren semearen bertsoak ...	72
Bertso Berriak: "Notiziya berri bat..." (Udarregik)	80
Juan Kruz Pelloren anayaren bertsoa	92
Bertso Berriak: "Dozenatxo bat bertso..." ...	94
Jose Agustin Errikotxia	101
Bertso Berriak: "Bertso bi paratzeko..." (Jose Agustin Errikotxiak)	104
Bertso Berriak Antigua-tar batek jarriak: "Kantuz artu nai luke..."	115
Franzisko Arzac Arana	122
Bertso Berriak: "Izketako bire bat..." (Paxtikoko Arzac-ek)	124

AZPEITIKO EUSKAL FESTAK

Garai artan bazan Frantziako Euskalerrian jaun oso aberats bat, Antoine D'Abbadie zeritzana, euskaltzale purrukatua. Endaya-n bizi izaten zan berak egiñazitako jauregi izugarri eder batean.

Jaun onek dirua galanki ematen zuan euskal festak egin zitezzen. Bein erri ontan eta urrena beste batean ospatzen ziran. 1893-garren urteko Agorrean Azpeiti-n izan ziran.

D'Abbadie jaun ori bezperatik iritxi zan. Azpeitiko kaleetan festa-usai aundia aditzen zan: soñua, etxapuegu, ta bazter guziak jendez gañezka. Erriko agintariak jaun orren zai zeuden.

Arteche-renean jarri zan ostátuz, Buztin-txuri-ko plazatxoan.

Apal-ondoan atarira etorri zitzaizkan erriko soñu-jotzalleak, eta auekin batera 500 bat mutil gazte. Onela oju egiten omen zioten: "¡Biba, biba Don Antonio Abbadia!"

Sofu-jotzalleak "La Azpeitiana" zeritzayon vals bat jo zioten, ta urrena "Gernikako arbola". Au jotzen asi orduko, bosteun mutil gazte ayek txapela erantzi ta kantari asi ziran. Ta ayen eztarritik trumoi bat bezela altxatu omen zan gure arbola santua ren kantua, gabaren ixiltasuna astinduaz. Izan ere, jakin egin bear da nolako sugarraz kantatzen zuten gure kantu ori, fue-roak galdu-berrian ziran euskaldunak.

Ori izan zan Azpeitiko erriak D'Abbadie jaunari egin zion ongi-etorria. Etzuan arek usteko, berak bere diruz antolatutako euskal festa guzietan Azpeitiko ori izango zala sonatuena; bañan, ala bearrez, ifork gutxi-en antzeman zezaken bidetik.

Festak urrengo egunean asi ziran, 10-an. ta beste errietan izaten oi ziran bezelaxe asi ere:

Meza nagusia orkestakin aurrena.

Meza bukatu, ta erriko plazara. D'Abbadie jauna ta agintariak Erriko-etxeke balko-yetan jarri ziran festak ikusteko.

Lendabizi, korrika-apustua, Arozpide zeritzayon aizkolari izandako batek irabazi zuana. Korrikalari batek iztarra autsi zuan.

Urrena, pelota partidua: Azpeitiko Inazio Alberdi ta Jose Maria Beristain, Azkoitiko Modesto ta Jabier Larrañaga-ren kontra. Ordu t'erdian arituagatik 33-na zeuden. Orduan saria erdibana partitu bear izan zieten. Izugarri partidu ederra izan omen zau.

Bazkal-ondoan, bertsolari-sayoa. Ontatik sortu bearra zan euskal festa auek famatuko zituan kontu ta ixtillua.

Lau t'erdietan asi ziran. Erriko-etxeko balkoyetatik jardun ziran. Bost milla lagun ba omen ziran plazan. Juradukoak etziran normai: Resurrección M. Azcue, Domingo Aguirre ta Felipe Arrese jaunak.

Asieran beste bertsolari batzuk ere agertu ziran, bañan laister iru bakarrik gelditu: Jose Bernardo Otaño, Zizurkil-goia, Juan Jose Alcaín, "Udarregi", Usurbil-koa, ta Pedro Elicegui, "Pello Errota", Asteasu-koa.

Danok dakitena, Joxe Bernardo ta Udarregi nekazariak ziran, ta Pello Errota, berriz, errotaria. Ba, Udarregi ta Joxe Bernardo oyek, nekazariak errotariari asmatu dezaizkioketen arrazoi beltz guziak bota omen zizkaten Pellori; bañan etzan au motela besteri bazarik ateratzen uzteko: berak etzuala kulparik alea zazarra izateaz... be-

rak ezin zezakeala, bi anea ale emanda, iru anea iriñ atera... ta orrela.

Gai ori utzi ta Euskalerra ta euskaldun guzien batasuna goratu ta kantatu zuten.

Jendea "biba Pello, hiba Pello", ari omen zan.

Juzkalariak alkarrengana bildu ta danak ao batez erabaki zuten saria edo, erriak sari oni beti esan oi dionez, premiyoa, Pello-rentzat zala; bañan —au ere esan zuten— pena zutela Jose Bernardo ta Udarregiren-tzat beste saririk ez izatea, bideko gastuak ordaintzeko lain besterik ez bazan ere.

Bañan ori ziotela, etzitzayon iflori gogoratu nolako ondoreak ekarri bear zituan sari geiagorik ez izate orrek.

Festak aurrera jarraitu ziran: emakumeen korrika-apustua sulla bat ur buruan zutela; pelota partidua (Luis eta Bizente Eceiza "Mardura", Biquendi ta Frantzesaren kontra); txistularien txapelketa ta abar.

Gabean, "Círculo Católico" zeritzayonean, zerbait festa izan zuten. Gernikako Arbola kantatuaz bukatu zan.

Andik irtenda, D'Abbadie jaun ori ta bere lagunak bazijoazen ostatu aldera. Alako

batean, bi bertsolari taberna batean kanta-
ri ari zirala aditu zuten. Alderatu ta ayeta-
ko bat Pello Errota zala ikusi zuten . Ez da-
kigu zein zan bestea. Euskalerrriaren oitura
zarrak ta fueroak goratzen ari ziran. Jen-
dea zoratzen omen zegoan eta bertso bakoi-
tzari sekulako txaloak jotzen zizkan.

Gelditu ziran pixka batean ayei aditzen;
ta Pello ez ta beste bertsolariak, D'Abbadie
jauna ere an zala konturaturik onela kanta-
tu zion Pellori bere txanda eldu zanean:
ixiltzeko mesedez ainbeste pantasi gabe,
erronka ugari zuala, bañan bitartean etziola
D'Abbadie jaunari agur egiten...

Pellok erantzun zion: "Ni ez, zu zaude
emen gizalegearen faltan; nik or ikusten
baitet D'Abbadie jaunaren andrea; ta emen,
besteetan bezela, andreak onratu bear dira
aurrena..."

Jendea "ibravo, bravo, Pello!" asi zan.

Jaun ayek erretiratu ziran, bañan bertso-
lariak eta jendeak segitu zuten bertsoan iya
gauerdiraño (1).

(1) Oraindañoako berriak: "AZPEITIA / Les
Fêtes euskarienes au pays de Saint Ignace /
Septembre 1893 / Bayonne 1894."

"Euskal-Erria", 1893.

"El Basco" ta "La Voz de Guipúzcoa" Bilbo ta
Donostiko periodikoak.

Festak aurrera segitu zuten, bukatu ere bai, bañan iñork etzion igerri ekaitza zeterrenik, alik-eta aurreneko trumoya aditu arte; alegia Udarregi-k bere lenengo bertso-papera atera arte.

Azpeitian bertsolarien artean zer gertatu zan, gauza illuna da ta onezkero beste munduan jakin bearko degu. Argi pixka bat geyago sortu nayeon, bertsolarien ondorengoai galdetu diegu ta ayen erantzuna urrenngo orrietan ikusiko du irakurleak. Zarrai ere galdetu diegu, bañan iñork ez daki esaten bertsoak diotena hesterik. Beraz, bertsoak irakurri ta egin dezala bakoitzak bere jukua.

Dana dala, Pello Errota ta Jose Bernardo aurretik konpondu ta dirua alkarrekin partitu zuten, Udarregi ezer gabe utzirik, auskalo zefien kulpaz.

Aurrena, Udarregik jarri zizkan bertsoak Pellori, ta Pellok erantzun.

Urrena Udarregik Pellori; baña Jose Bernardo ere salsan sartzen zuan, ta Jose Bernardok erantzun zion.

Irugarren txandan, Udarregik herriz ere bertsoak beste biren kontra; eta oraingoan Pelloren semeak, Migel Antonek, erantzun.

Laugarren aldiz ere jarri zituan Udaregik.

Oyartzunen errotari bizi zan Juan Kruz Pelloren anayak ere jarri zituan bertsoak. Jarri-aldi osoa izan omen zan, bañan bertso bat besterik ez degu jaso.

Dana dala, bertso oyek Euskalerra guzira zabaldu ziran. Bertsolarien artean ezpaita sekulan sortu au bañon sesio gogorragorik. Jendea, batzuek baten alde ta besteak bestearen alde, jarriko zan noski; bañan bearbada Udaregik besteak baño lagun geyago izan zituan. Udaregiren aldeko beste lau bertso-paper arkitu ditugu beintzat, eta Pello Errotaren aldekorik bat ere ez.

Lau oyetatik bat, ez dakigu norena dan. Errenteriko Makazaga-k argitaratutako bertso-liburu batean arkitu degu.

Beste irurak Donostiko Baroja-ren moldiztegian arkitu ditugu:

Bata da Orioko Jose Agustin Errikotxiarena. Bestea "Antiguatar batek jarria". Ez dakigu, ordea, nor izan ditekean Antiguatar ori. Irugarrena, Alza-ko Galantaene-ko Patxiku Mari Arzac-ek ipiñia.

Azkeneko paper au 1895-garren urtean Ilbeltzaren 20-an jarria dago. Beraz urte

t'erdian aritu ziran bertso-paperak alkarri jartzen. Udarregi, 1895 urteko Urriaren 2'an il zan, eta esan diteke aren eriotzak jarri ziola errematea auzi oni.

Udarregik etzekian irakurtzen ta besteak paperetan zer zioten jakingo bazuan, aldameneko baserrira, Artikula-Txiki'ra, joaten omen zan, besteen papera irakurri zezayoten.

Dударик ez dago, diruagatik bañon geyago, lagunaren aziyoagatik mindu zirala. Izan ere, mundu ontako aziyoak besterenak oi dira beti, ta ayei ere orixe gertatu zitza yen. Uztapidek orain denbora gutxi beste bertsolari bati kantatu ziona:

“Onen dotriñak dio:
zu pekatariya...”

Dana dala, gure onetan sortu zan sesio ura. Aretzek utzi baitigu bederatzi puntuko bertso-sortarik ugariena ta jatorrena.

Gauza jakiña da, beren almenak ondo probatu nai izan dituztenean, bederatzi puntuko bertsoa artu izan dutela beti bertsolariak. Euskerak bertso-mota asko du; bafian esan genezake bederatzi puntukoa degula danetan bikañena. Sesioa asi zanean, Udarregik ortik jo zuan eta iñor ere etzan bide ortatik zeartu.

ONDORENGOAK DIOTENA

Bertsolarien ondorengoak esan digutena emen jarri degu iya itzez itz.

Mikaela Elicegui Bengoechea

(94 urte), Pello Errotaren alaba:

Ni ezkondu nintzan urtean zan ta neronek kopiatu nituan gure aitaren bertsoak. Anayarenak ez, arek eskola bazuen ta.

D'Abbadie frantzes a zan, oso aberatsa. Eta erriz erri euskerazko zerak, bertsoak eta euskerazko dantzak eta premiyoak jartzan ibiltzen zan frantzes ura.

Eta Azpeitin premiyoa jarri zuan bertsolariantzat. Nai zuana kantatzera joateko.

Zizurkilgo Jose Bernardo Errekalde, Usurbilko Udarregi ta gurea, bertsolari printzipalak ordun oik ziran. Besteren batzuk joango ziran akaso Azpeitira, bafian iru oyek beñepein joan ziran.

Ta gurea ta Udarregi sartu omen ziran os-

tatuan ta Udarregi ori berebiziko kejak kon-
tatzen asi omen zitzayon gure aitari, ta gu-
reak esan omen zion:

—Gizona, ez kejatu, alkar ez degu gal-
duko.

Alegia, batek irabazten bazuan, bestei
ere partituko ziela.

Bañan Udarregi orrek erantzun zion:

—Zuek nayagatik ni galtzen errez dala
uste al dek?

Aita gureari ez ondo iduritu burla ura ta:

—Orduan al dunak al duna egin.

Ta orrela partitu ziran alkarrengandik.

Ta gureak atera premiyoa; ta gureak or-
duan, berea zuan bezela, berak jaso.

Udarregi ori arrotuta prestatu zitzayolako,
argatik etzion ezer eman, bañan Jose Ber-
nardori bai, eman zion.

Gauza oyek danak kantetan an jarri ziz-
kan.

Oyek pasa ta gero Usurbilla joan ta an
egokitu biak eta an gureak bertsoan esan
zion:

—Premiyoa zer moduz?...

Onela asi zan bertsoan tentatzen, ta batek bat ta besteak bestea, ta andik asi ziran kantak jartzen.

Udarregik atera zizkan lenbizi, Usurbillen burla egin zion ondoren. Ta gero gureak jarri zituan, pasadizua kontatuaz. Ta gero Jose Bernardok ere bai: "Pello degu juez — nombratua berez...". Ta gero gure anayak ere bai.

Gureari berealaxe pasatzen oi zitzayon asarrea. Bakoitzak geren odola bear degu, ta badira gorrotoa sekula aztutzen etzayenak; bañan gurea etzan setosua. Emen ola egingo, bañan andik atera baño len dana damutua.

Gero ez dakit asarretu ezkeru adiskidetu ziranik. Ez nion nik beñere aditu beñepein: Udarregikin izan naiz edo Udarregikin mintzatu naiz (1).

Emen ala ibilli ziran. Ez dakit orain zerruan nola dabilzan.

(1) Ez da arritzeko; Udarregi andik bi urtera il baitzan.

Adriana Otaño Odriozola zana

(83 urte), Jose Bernardoren alaba:

Ondo gogoan det. Ni neska koxkorra nintzan. Pello Errota etorri zan gure etxera.

—“Notizi txarrak, notizi txarrak” —esan zuan, ta gero eztakit zer ta badakit zer, ta bertsoak jarri zituala Udarregik ta au esaten zuala ta ura esaten zuala.

Gero Pello Errotak jarri zizkion Udarregi orri bertsoak, ta gero gure aitak ere bai bere gisa.

Azpeitira joan ziranean, zer “partilla” edo zer egingo zuten, ta Pello Errotak edozer tratu egingo omen zuan; bañan Udarregi orrek, bera etzala konforme.

Lastima, ura partitu bear omen zuten, bañan Udarregi orrek uste omen zuan beretzat zala seguru; bañan besteak ere onak ziran ta Pello Errotarentzat joan zan premiyoa.

Usurbildar ori bertsolari ona omen zan, bañan egokiera ez da beti izaten.

Mateo Landa Alcaín

(59 urte), Udarregiren billoba:

Nik ez nuan aitona ezagutu ta ez diot gauza aundirik esango.

Frantzes batek premiyoa ematen zuala ta Pello Errota, Jose Bernardo ta gure aitona presentatu omen ziran. Pello Errotak jaso omen zuan premiyoa, bañan ez omen zion gureari pagatu.

Etxera etorri ta bederatzi puntuko bertso oyek jarri zizkan gureak.

Beste biak ere bai, bañan gure aitona oso bertsolari ona zala esaten dute. Arek jarritako puntu oyek, tapatzen zallak dira beintzat.

BERTSO BERRIAK

1/ Azpeitira dirate
bertsuetara deitu,
gizon balientia
naute eskojitu,
buelta bat egitia
nuen disponitu,
!ay! pensamentu oyek
artu ez banitu,
gutxi suponitu,
ez gera unitu,
utsik naiz gelditu,
talentubak aitu,
enfermedade txarrak
bajatu gaitu.

2/ D'Abbadi jaun ori
frantzesara da berez,
ni berriz espaiola
pobria nerez,
premiyuak partitzen
ditu kantidadez,
Azpeitira juan nitzan
bizirik dolorez,
hajuba kolorez,
eskasa balorez,
Pello degu juez
nombratuba legez,
ni utsik geldituba
portatu gabez.

3/ Premiyua eman zioten
Pello Errotari,
ez dan gauzik esaten
ez gerade ari,
zerbait luzatutzeko
here lagunari,
Juan Jose Alkain edo
Jose Bernardori,
gezurra ugari
sakatu dit neri,
triste Udarregi,
deskubritu bedi,
asko partitu gabe
juana da ori.

4/ Orduban Azpeitiyan
zan alkate jaunak
partitu omen zizkan
bere ordenak,
ango tribunal edo
komisiyo onak,
artako nombratuta
zeuzkaten gizonak,
guztizko personak,
ala dira sonak,
pruebak emanak,
orren faltak danak,
edozein gauza libre
lotsatze'ez danak.

5/ Erriko alkatiak
itz oyek esan-da,
errespetatu gabe
zertako juan da?
tribunala ere berriz
artarako zan da,
orrek guziyai alde
listua izanda,
berak artu prenda,
publikora erten da,
sufritutzen lan da,
txarra da demanda,
etzaizkiyo urritu
neri emanda.

6/ Alkatiak jarriya
zan kondiziyua,
lagunairi egiteko
partiziyua,
eman biar danian
txarra zoziyua,
bota ta kunplitzen da
obligaziyua,
orren aziyua
ai zer leziyua!
dala traiziyua,
konparaziyua:
Judasek izan zuen
ofiziyua.

7/ Giza-arte txarrera
ez nitzan etorri,
bolsan diruba ondotxo
ez banu jarri,
D'Abadi-k premiyua
eman arren orri,
etziyon zentimorik
Alkaifi ekarri,
artutzeko larri,
berak gorde sarri,
artu eta korri,
izan banintz urri,
ibilli bear nuen
desonragarri.

8/ Kantidade guziya
jaso du urretan,
eun franko justu dira
lege zarretan,
ez gerade metitu
enplio txarretan,
propinak partitzeko
kale baztarretan,
nago bildurretan,
ori indarretan,
ez dala zorretan
dabil gezurretan,
aberastu biar du
modu orretan.

9/ Premio ori artu ez,
galanki gastatu,
sentidubak nai ditut
manifestatu,
Pelloren aziyuak
etzaizkit gustatu,
host duro utzi ditut
kotxe ta ostatu,
zertako estutu?
ez gera ajustatu,
gezurra prestatu,
diruba arrastatu,
konzientziya ondo
errejistatu.

10/ Azpeitira jua nitzan
ni zori gaitzian,
gizon onratu batek
deitu baitzian,
batzuetan oñez ta
bestian kotxian,
zorrikan utzi gabe
sartu naiz etxian,
gizona zartzian
premiyua atzian,
au gogoratzian
pena biotzian,
lasaituko gerade
kobratutzian.

11/ Usurbillen dema bat
aurten da jokatu,
an elkar billatzia
zaigu tokatu,
askoz nayago nuen
ez banu topatu,
gezurrak esan eta
egiyak ukatu,
saltsa eziñ bukatu,
izketan nekatu,
kasik da pekatu,
eziñ debekatu,
ojala ez bagendun
itzik trukatu.

12/ Fundamena izan zan
Pelloren aotikan,
“zer notizi nituben
Azpeititikan”,
nik pakia desio
nere partetikan,
asko kejatu gabe
asi zan platikan,
illiak zutikan,
bere gramatikan,
oso gogotikan,
sendo politikan,
orri ajola diyo
guregatikan.

13/ Orduko itzakgatik
egifi diyot kaso,
errespeto piska bat
biagu preziso,
nai dubena esatia
ez baita alkaso,
bere mantxak bota nai
zizkiran akaso,
kopak sarri jaso,
zurrut kurioso,
jarri animoso,
ni ez nago gozo,
zergatik juzgatu nau
gezurti oso.

14/ Astiasuko erriko
Don Pedro Elicegui,
gezurrez dabilela
Juan Joseri,
ez diyo begiratzen
zenbaitek ezeri,
prestubak insultatzen
gizona ez ari,
tentatu zat neri,
Alkain Udarregi,
egiyaz da ari,
publikatu bedi,
ez berak dauzkan tatxak
hota besteri.

15/ Pello desafioka
aspaldi asiya,
zertan egingo zayo
menospreziya?
ori da gazterikan
ondo ikasiya,
berak markatu zuen
probintzi guziya,
etzan itxusiya,
daukat ikusiya,
onrak mereziya,
izan du graziya,
amaika duro eder
irabaziya.

16/ Oso trebia dago
kantuzko lanian,
orrelako gutxi da
gaurko egunian,
gogor egiten niyon
gazte giñanian,
obeditu diyogu
etsi degunian,
sasoya juanian,
baju gaudenian,
orgullo onian,
farra aldamenian,
Juan Jose Udarregi
galdu danian.

17/ Lau probintzi oyetan
ori da jueza,
talentuba duenak
biar grandeza,
beti artako dago
estu eta presa,
kantuz etxeratzen du
zenbait interesa,
jan da edan lasa,
egun onak pasa,
ez dago eskasa,
eman diyot traza,
titulo eder ori
konserba beza.

18/ Oraiñ ogei bat urte
nintzan indarrian,
tabernan bezelaxe
ote-larrian,
Pellorekin ere bai
patxara ederrian,
allegatu ezker
egiñ biarrian,
teatro zarrian,
ez leku txarrian,
jende asko urrian,
naiko bildurrian,
beti etzan atsegiñ
nere aurrian.

19/ Nik orduban banuen
gizon baten lana,
berak ere badaki
ona nintzana,
sarritan juntatutzen
giñan elkargana,
juzgatzen zuten zeññ zan
baliente zana,
bazuen afana,
klarua kanpana,
berekiñ daukana,
ni denbora juana,
ezagututzen gaitu
baju gaudena.

20/ Gu gera bertsuetan
aspaldi asiyak,
aitu dira kantuzko
irabaziyak,
makiña bat funtziyo
gaude ikusiyak,
broma ederrak pasa hai
Jaunari graziyak,
lanian eziyak,
nekoso biziyak,
indar eskasiyak,
modu itxusiyak,
zartzak azaltzen ditu
aje guziyak.

21/ Onrak merezi ditu
Azpeitiko erriyak
igual ango jende
maitagarriyak,
premiyuak ziraden
ara etorriyak,
D'Abadi jaun orrek
kotxez ekarriyak,
zer urre gorriyak!
gu diruz urriyak,
bajutxo jarriyak,
gaude igarriyak,
orra Udarregi zarrak
bertso berriyak.

IKUSI: Bertso-papera: "Vergaran: J. Lopez-en moldizteguian". (G. Mugica zanaren bertso-bilduma, Donostia.)

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Elizagaray, Ondarrabi): 2/1: Don Abadi jaun ori; 7/5: Don Abadi premiyua; 9/9: zertako geratu; 10/2: ni ordu gaitzian; 10/10: premiyan jartzian; 12/1: fundamentu izan zan; 12/13: orri ajola gutxi; 13/4: biar da preziso; 14/9: faltatu zait neri; 15/11: obrak mereziya; 16/6: gazte nitzanian; 18/3: taberna betetare; 18/11: jende asko aurrian; 19/5: sarritan biltzen giñan —gu alkarren-gana; 19/7: juzgatzen zuten ori; 20: bertso au oso osorik falta du.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, (Bizonte Mugica-ren bitartez, Ormaiztegi): 4/11: pruebak ematia; 5/8: pillua izan zan da; 10/17: zorrikan gabe; 12/1: aziera izan zan; 12/9: jaikirik zutikan; 12/10: oso gogotikan — bere gramatikan; nere urrian; 20: bertso au oso osorik falta du.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, (Arzuaga, Donosti): 5/8: pillua izan da; 12/1. asiera izan zan; 12/9: jaikirik zutikan; 12/10: oso gogotikan — bere gramatikan; 18/14: nere urrian; 20: bertso au oso osorik falta du.

Bertso-paper baten puska bat, 3, 4, 5, 8, 9, ta 10-garren bertsoa bakarrik dakarzkiena, J.R. Errazquin Lujambio, Gazteluene, Alza).

La Constancia-ren puska bat, (M. Lecuona apaiz jaunaren bertso bilduma): 12/1: Fundamentu izan zan; 12/9: illak zutikan;

Bertsolariya, 28, 1932'ko Epaila'ren 27'an: 9/9: zertako geratu; 10/2: ni zati gaitzian; 12/1: fundamentu izan zan; 15/11: obrak mereziya; 18/11: jende asko aurrian; 18/14: nere urrian; 19/7: juzgatzen zuten zein; 20: bertso au oso osorik falta du.

Eskuz idatzia (Lorenzo Zulaica, Zarauz): 5/12: txarra ta demanda; 7/4: ez banuen jarri; 14/3: gezurretan dabillega; 16/3: orrelako gutxi dira;

16/6: asten giñanian; 16/7: obeditzen diogu — ezin degunian; 19/8: balientiena.

Ta gero alaxe dio: Ogei ta bat bertso aurretik dauden oiek, dira Juan Jose Alcain Udarregi zanak Pello Errota zanari jarriak. Azpeitiko errian bertsoan izanda premiua juezak Pellori entregatu, esanaz Juan Joseri ta Jose Bernardori emateko, irurak igualdadian partitzeko, baña Juan Joseri eman ez. Orregatik atera zizkan. Gero jarraituko degu beste ateraldiakin. Gero aben kontra Pellok atera zitun, eta berriz Juan Josek atera zizkan Pellori beste ojatik asita dauden amabi bertso oyek. Lau ateraldi dira Udarregi zanak jarriak iru bertsolariaren kontra: Pello bat, Jose Bernardo Errekalde ta Pelloren semea.

"Bertsolariya" N.º 1. (Ez da "Bertsolariya" bertso-aldizkari famatua, gerraz geroztik Makazagarenean agertu zan amar orriko zenbaki bakarra baizik. Izenburua: "Azpeiti'ko premiyuen gañian jarriyak 1894'gn. urtian". 3/4: ez naiz ari; 5/8: pillua izan da; 12/9: jaikirik zutikan — oso gogotikan — bere gramatikan; 20'garren bertsoa falta du.

BERTSO BERRIAK
ORDAÑETAN JARRIAK

1/ Bertsuak ipintzera
nua ni besteri,
lenago bestek ori
egin dit neri,
ortan sayatu dana
Juan Jose Udarregi,
orain ari dana da
Pello Errotari,
itz egin alkarri,
arrazoyak garbi,
ez gezurrik jarri
mundu parragarri,
zer zeran ikusiko
zaitugu sarri.

2/ Milla zortzireun da
laroi ta amairuan,
Agorran amar egun
zituen orduan,
Azpeitian bertsuetan
jokatu genduan,
ia premiyua nork
ateratzen zuan,
plazan tableruan,
egun argi klaruan,
jende asko zeguan
an erreparuan,
orduko apustuba
galdu zenduan.

3/ Premiyua jarriya
zuen an batentzat,
ori jakiña dago
onenarentzat,
Udarregik desiatzen
zuena beretzat,
baña portunatuba
dago Pellorentzat,
an zeuden juezak
ez oso aldrebesak,
neurtutzeko gauzak
jo naube obetzat,
pena ori daukazula
iduritzen zat.

4/ Apustuba jokatuta
urrengo goizian
notiziak aguro
zabaldu zian,
Gaceta-n ere baita
igual La Voz-ian,
nola premio oyek
Pellorentzat zian,
Juan Jose atzian
gelditu da utsian,
estadu motzian,
nere paltak etzian,
zuk ere izango dezu
irabaztian.

5/ Agorraren amarrian
Azpeitiko plazan,
gutxienian bost milla
persona bazan,
gu ikustiagatik
kantuzko alegrantzian,
gero kontatutzeko
ederrena nor zan,
Udarregi an zan,
zerbaiten esperantzian,
utsik atera zan,
nere kulpa etzan,
buruba makurtuta
etxera juan zan.

6/ Premiyu orretan zu
ezpaziña izan,
Bernardo ta neretzat
bentajago zan,
pesta ederragua
askoz egingo zan,
gurekin diferentzirik
aterako etzan,
gizon au sortu zan
ta plazan sartu zan,
gitxi portatu zan
orduko izkuntzan,
zer langille zeguan
ezagutu zan.

7/ Azpeitiyan sartu zifian
Nikolas-enian,
jarri nitzaizun zere
aldamenian,
keja batzuk kontatzen
asi zifanian,
ustez itzegin nizun
gizatasunian,
al zana onian,
nere alegifian,
lagundu nayian,
al nuen gayian,
aztu gabia daukat
zer esan zirian.

8/ "Alkar ez degu galduko"
bertan niyon esan,
errespuesta ederra
nigana etzan,
"iya naita ere ura
galtzen errez al zan",
berak pentsatzen zuen
obia ote zan,
alako grandezan
nigandik juan zan,
Pello aserre zan,
orra itzegin zer zan,
lan orregatik ori
utsik irten zan.

9/ Diruba ekarri zuen
frantzes famatubak,
juzkalariyak berak
zeuzkan autubak,
ondo neurtu zitzatela
gure talentubak,
zefiek lan egin zuen
daude akordatubak,
urre sillatubak
neri entregatubak,
nik ditut artubak
ta poltsan sartubak,
bentaja egin dit neri
an portatubak.

10/ Pelloren konzientziak
ez daduka arrik,
Juan Joseri eginda
aziyo txarrik,
jokatzerako zerbait
ark itzegin balit,
pozik emango niyon
piska bat bederik,
gaizki neregatik
itzegin atzetik,
ez dauka arturik
ark nere urrerik,
zergatik ez diyodan
nik orri zorrik. (1)

11/ Zure arrazoi batzuek
etzaizkit gustatu,
nere kontra zerade
manifestatu,
gezur asko esan dezu,
gutxi sinistatu,
nerekin etziñaden
iñun ajustatu,
kotxe ta ostatu
dezula gastatu,
dirurik ez artu,
etzaude kontentu,
abisatu zizunari
orain eskatu.

(1) Migel Anton Pelloren semeak esaten omen zuan bertso ontako puntuak bateonbategen aldatuak zirala. (A. Elicegui, Miguel Antonen semea.)

12/ Abisatu zizun ori
ez dago pobria,
guk aña izango du
zillar da urria,
bestela ez dakit baña
mingañez noblia,
besterenetik konpritu
nai luke ordia,
premiyo neria
ez dala zuria,
sinistia obia,
nik det poderia,
gordetzia libre du
zefiek beria.

13/ Judasen ofiziorik
sekula ez det izan
munduban oraindaño
nere bizitzan,
pentsatzen det zerorri
ala ote zabiltzan,
gizonak endredatzen
utsaren peskisan,
ez bazendun esan,
zuretzat obe zan,
or zaude bajezan
ango interesan,
nik zuzen segitzen det
dedan pobrezan.

14/ Gezurrarekin artu
dituzu neurriyak,
kanpora zabalduaz
etxeko berriyak,
nik esango dizkitzut
egiyak garbiyak,
nun nai ondo ematen du
gauza ondo jarriyak,
Bernardok erdiyak
ango urre gorriyak
ditu ekarriyak,
berdin giñan biyak,
ez du zure lotsarik
errotariyak.

15/ Sekulan ez det egiñ
biar ez dan lanik,
zuk bestek ez dit esan
lotsik ez dedanik,
kulparik izan banu
nik ez neukan penik,
nik ez nuen lagunari
partitzeko ordenik,
olako gizonik
mundu ontan zanik!
ez dago euskaldunik
orla jardun danik,
zuk aurrian aña lotsa
atzian det nik.

16/ Partitzeko ordena dala
Udarregik esan du,
gezur kontari dabil
au munduz mundu,
nik premiyua atera
sufritu ezin du,
pentsatutzen jartzian
ernegatutzen du,
pena aundia artzen du,
berak ezagun du,
neri ezin kendu,
biyotzetik min du,
zuretzat ere bazan
egiñ bazendu.

17/ Usurbillen izan nitzan
iri-apustuban,
Udarregi jaun au're
portunatu an,
egun guztiyan alkar
ikusi ezkenduban,
nigana allegatu zan
gaubaz beranduban,
ni nitzan lekuban
sartu ostatuban,
asi gifiñ kantuban
biyok lau puntuban,
ordukuaz al zaure
sentimentuban?

18/ Bajatu zeradela
diyozu zardadez,
neroni're aurrera
nua edadez,
berroi ta amairu urte
nik egoarri-gaubez,
bautismoa emango'izut
ala dan edo ez,
nere kalidadez
nabill giza-legez,
gaitzikan esan ez
nik uste dedanez,
ez nabill arrotuta
gaztetasunez.

19/ Ara bertso berriyak
Don Jose Alkañi,
Pello Errotakuak
dizka ipiñi,
aurretik ori bera
egin neroni,
buelta ematia
zitzaidan komeni,
bizirik banaiz ni,
osasunaz ongi,
oinbeste armoni
ez geigo ibilli,
orra errespuestak
ikasi ongi.

IKUSI: Bertso-papera: "Tolosa: — Imp. de E. López." (Gregorio Mugica zanaren bertso-bilduma, Donosti.)

Bertso-papera: "Imp. Macazaga — Rentería". (Asteasuko uztargillea). Onek 2, 4 ta 6'garren bertsoak falta ditu. Gañerakoetan: 3/5: Udarregik esperatzen; 5/3: gutxienez bost milla; 5/10: zerbait esperantzan; 7/7: ustez utsegiñ nizun; 7/9: moduik onenian; 7/12: altzana gayian; 10/14: nik ari zorrik; 14/3: ez nola nai ipiñi — bertso berriyak; 15/3: arrazoi ederrikan — zaude emanik 15/11: ez da euskaldunik; 16/5: nik premiyua artu ark; 16/9: pena artutzen du; 17/9: sartu osatuan; 17/10: ni negon lekuan; 18/11: gaitzikan izanez; 19/5: lenago ori bera; 19/6: egin dit neroni; 19/7: bueltak ipintzia; 19/13: adiskide maitiak.

"Bertsolariya" N.º 1. (Ez da "Bertsolariya" bertso-aldizkari famatua, gerraz geroztik Makazagarenean bertan agertu zan amar orriko zenbaki bakarra baizik.) (Emen eta besteetan ere, aldaketarik jartzen ez bada, batere arkitu ez diogulako izango da.)

BERTSO BERRIYAK

1/ Kargu egiñ biayot
Pello Errotari,
zergatikan dabilen
gezur kontari,
desonratu nai luke
Juan Jose Udarregi,
ez dit mantxa aundirik
billatuko neri,
nik asko berari,
badauzka ugari,
ez da ondo ari,
zer mutilla ori
propina partitzeko
ez daukanari.

2/ Pellok itzegiten du
gogor ta torpezan,
neri ezer emateko
etzayola esan,
ez adituta ere
gustokua izan,
konprendituko zuen
artzeko izan bazan,
bera dago kausan,
ez dago pobrezan,
sartu da interesan,
bota du grandezan,
gezurra nai dubenak
sinistu dezan.

3/ Gizon orrek eman du
asko esperientzi,
nai dubena esan da egiñ
dauka lizentzi,
urretan omen dauka
asko abundantzi,
lasai egiñ dezake
mantendu ta jantzi,
ematiari utzi,
artutziari eutsi,
dauka lotsa gutxi,
ortzak erakutsi,
onekiñ biar degu
bost pazientzi.

4/ Orren despreziyuak
ez daude aztuta,
arro dabill orgulloz
aberastuta,
Juan Jose dagualako
burutik nastuta,
ori iñoiz bezela
zurrutak poztuta,
tragua ustuta,
mokua zorroztuta,
kopeta belztuta,
erdi berdoztuta,
lotsak ematen dizkit
berak ez du ta.

5/ Tokatu balitz neri
premiyua ematia,
Pellok esperatuko
zuben partia,
orri gustatzen zayo
aurrian jartia,
ez artu ta saltoka
igesi juatia,
ez da inozentia,
maleziz betia,
agintzen dezentia,
zer ayudantia,
orrek kendutzeko du
borondatia.

6/ Falso testimoniya
modu orretan sortzen,
kastigatu dezagun
ez da bildurtzen,
zuk deretxo gabiak
badakizu artzen,
ezpañak igurtzita
patrikadan sartzen,
or zabilta urtzen
onradubak neurtzen,
ez badezu aitortzen
asiko naiz txartzen,
ez dezu zere onra
asko edertzen.

7/ Azpeitiyan izanak
gera elkarrekiñ,
pazientziya asko
biar da orrekiñ,
beste lagun bat ere
bazuen berekiñ,
biziro portatubak
ez dira nerekiñ,
bagendu zerekiñ
pakia gurekiñ
zeiñ gabiltzan zikiñ
nai duenak jakiñ,
biar dan lekutikan
lanari ekiñ.

8/ Orrelako modurik
iñon egundafio
ez degu obserbatu
guk oraindario,
neretzat izandu da
franko desengario,
kotxian jua nintzan
Azpeitiario,
iyo ari gorario,
nork daki norario,
itzegiten lafio
Pello ta Otario,
asiera obia
despeida bario.

9/ Azpeitiyan utziya
zuten urre pilla,
ostatura jua ziran
kanbiyo billa,
amar ta amabi duro
zan biyen partilla,
Juan Jose gabetanik
eifio zuten tortilla,
ni oso umilla,
ez neguen abilla,
korputza debilla,
aprobetxa nadilla,
itxuben aurrerako
ai zer kuadrilla!

10/ Pello Donostiara
etzaituzte deitu,
nork bere ofñaziak
pasa biaitu,
emengo publikuak
umillak nai ditu,
zu guztion buruba
txokuan gelditu,
gu biartu gaitu,
simple iruditu,
ez naiz atrebitu,
zuri bentak aitu,
orgullo geyegiyak
ortara zaitu.

11/ Asko egoten gera
dirubak poztubak,
bertsolariyak gutxi
aberastubak,
korritz'ez degulako
gu gaude moztubak,
urtiak juan eta
odolak oztubak,
eite'ira gastubak,
ez daude aztubak,
ordena estubak,
izketa justubak,
Donostiyan nai dira
gizon prestubak.

12/ Egiyaz enpliatu
dauzkazun indarrak,
utzi zitalkerizko
esan biarrak,
zu zerala mediyo
sortu ziran gerrak,
ez dizkidazu egiñ
aziyo ederrak,
ez izan zabarrak,
Gipuzkoatarrak,
desaide ta farrak,
zure sake txarrak
errestatuko ditu
Udarregi zarrak.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izen gabekoa. (Antonio Arrillaga zana, mediku jauna, El-goibar.)

Bertso-papera, moldiztegiaren izen gabekoa au ere. (Francisco Lete, "Patxi Estra", Azkoitia.)

Jose Ariztimuño apaiz jaunaren bertso-bilduma: makinaz idatzita, 1933-garren urtean "Soraluze"-ek bialdua: 5'garrena falta du; 6/1: Faltso testimoniyan; 8/3: ez det nik oserbatu — ez oraindaño; 8/8: ni Azpeitiraño; 8/11: baño; 9/11: gorputzaz debilla; 9/12: probetxa nadilla.

Zarauz-ko Lorenzo Zulaica-k eskuz idatzitako bertso mordoxka: 5/1: Tocatu balitzat neri.

Ta bertsoen ondorean onela dio: "Amabi bertso, oien kontra, Jose Bernardo Errekalde-k atera zitan berriz; gero bueltak Udarregik.

ZIZURKILLEN 1894-GARREN URTIAN
BERNARDO OTAÑOK
JARRIAK BERE ARTIAN

1/ Usurbil aldetikan
ditut notiziyak,
neretzako dirade
sobra gaziyaq,
Juan Jose Udarregik
biraldu-aziyaq,
pazientziyan nago
Jaunari graziyaq,
gure nobleziyaq
ala mereziyaq,
kontu itxusiyak
dauzkat ikusiyak,
nola ongi bukatu
gaizki asiyaq?

2/ Biartu zeradenez
zuk ezereñ faltik
beñere eztezu izan
Errekaldetik,
Pellorekin badezu,
konpon zaitez ortik,
zertan mintzatu zera
Bernardorengatik?
ai zera gogotik,
guztiyen gañetik,
ez dizula inportik,
ori zere autik,
askoz ederrago zan
aldamenetik.

3/ Iru gizon kantari
Azpeitiko plazan,
gu ikustiagatik
amaika bazan,
zenbaiten mingañian
premiyua dantzan,
Udarregi zeguan
ustez segurantzán,
esateko trazán
ala ezagun zan,
Pello're arrantzán,
ni're esperantzán,
justu itzegingo det
an zer pasa zan.

4/ Kotxian zan Juan Jose
Azpeitayan sartu,
ia Bernardo nun zan
zuban galdetu,
kasinuan nintzala
ara zan agertu,
“premiyuaz zer berri?”
ninduban tentatu,
makifia bat kontu
genduban tratatu,
bera apartatu,
zitzayon saltatu
berdiñian etzala
ura kontentu.

5/ Pello arrimatu zan
berriz neregana,
au da lendabiziko
esan zirana:
“Deskuiduan erortzen
bada guregana,
partituko al degu
biyok erdibana?”
Udarregik jana
zeukan ango lana,
guri pixka bana,
au zan aren plana,
orra egiyaz esan
gertatu zana.

6/ Propiyo Azpeitira
egiñ giñan juañ,
jakiñik premiyo bat
nola zeguan,
Udarregi ta Pello
neronen onduan,
egun ura oraindik
dadukat goguan,
Juan Josek orduan
itzegin bazuan
alako kasuan
konfiantza osuan,
guk bezela igual
izango zuan.

7/ Gizonikan onena
askotan txartzera,
Udarregi geyegi
mintzatzen zera,
zere lagun aundiya
zatoz mantxatzera,
ortatikan obeki
irtengo etzera,
al balitz zartzera
erronkak atzera,
ez iñor galtzera,
baizik laguntzera,
begiratubaz zefiek
bere etxera.

8/ Ekiteko diyozu
gogotik lanari,
zertara ote dijua
arrazoi ori?
ortarako zanikan
Juan Jose Udarregi
ez niyon sinistuko
munduban iñori,
bajeza ubari
bere lagunari,
Jose Bernardori,
ez gustatzen neri,
prenda artzen pakian
daghanari.

9/ Ongi partituko zan
ango urre pilla,
eduki izan bazendu
mingaiñ ixilla,
batzuek etorriko
ziran Usurbilla,
nola Astiasura
ala Zizurkilla,
zu zaude mutilla
ez oso umilla,
eiñ dala tortilla,
au zure kartilla,
garai onian zatoz
premiyo billa.

10/ Orañ beste bat arte,
Juan Jose, ariyo,
etzait gustatzen albait
berri-jariyo
alde zifñala uste
eta kontrariyo,
askotatik gutxiri
gustatutzen zayo,
beti zaitut iyo,
zeren nintzan piyo,
ala du baliyo,
gaur nago seriyo,
kontu txarrak atera
diran meriyo.

11/ Ni onetara nintzan
bestek biartuta,
egon zaitezte biyok
ezagututa,
gizon zital samarrak
gifiaden bilduta,
geroztikan bizi naiz
oso damututa,
daukat pentsatuta
danok juntatuta
bertso onak bota
ez alkarren kontra,
agur, Udarregi ta
Pello Errota.

IKUSI: Bertso-papera: "Tolosan: P. Gurruchagaren Alargun eta Semeen moldizteguian". (G. Mugica zanaren bertso-bilduma, Donostian)

Bertso-papera: "Imp. Macazaga — Renteria". (Manuel Beraza apaiz jauna, Urretxua.) Papera-ren atzeko aldean beste bertso auker daude: **Neska zar batek bere buruari jarriyak**: "Bertsuak jarri dizkat nere buruari..."

"Bertsolariya" N.º 1. (Ez da "Bertsolariya" bertso-aldizkari famatua, baizik gerraz geroztik, Makazaga-renean itxura danez, agertu zan amar orriko zenbakia.)

PEDRO MARIA OTAÑO-REN BERTSOA

“Azpeitiko premiotzaz Udarregi ta Pello Errotak alkar bertso-borroka sortuta, sartu bearra izan zuan Jose Bernardo Otaño-k pa keak egiteko aien artean. Ortarako, bere bertsoak Pedro Mariri biali zizkion (beti bezela), aurrez ikusi ta bere iritzia emateko. Ara emen Pedro Mariren iritzia:

Egondu naiz bedorren
bertsuei begira,
t'ez pentsatu nuala
inbusterira;
famatu bearrikan
ez dutenak dira,
nik aitortuko niyon
koxkorrak balira,
Azpeitiko jira
ta aren segira
orain etorri da
bear dan tokira,
arrazoizko gizonak
baldin badira.” (1)

(1) Aurreko argibidea ta guzi, Otaño-tarren illoba dan Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak bialdua.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Azpeitiko juntaera
izan zala kaso,
iru gizon gabiltza
txit orgulloso,
Juan Jose Udarregik
eiñgo diye kaso,
ez bazayo aztutzen
bertsuetan oso,
nago animoso,
ari naiz eroso,
oraindik airoso
ez desprezioso,
guztiyok nai genduke
biktorioso.

2/ Premiyua izan zan
Pellori eroriya,
oraiñ disputa eta
fanfarreriya,
farra eragitekotan
ango komeriya,
gizon formalarentzat
aldrebeskeriya,
ez da enbusteriya,
gauza agiriya,
Pello errotariya
onroso ariya,
obratik juzgatzen da
bertsolariya.

3/ Peligrosuak dira
plazako neurriyak,
sentidubak ez daude
irakurriyak,
zenbaitek kantatze'itu
bertso zar herriyak,
oso zarrak igual
len berak jarriyak,
mingañez larriyak,
talentuz urriyak,
lagun galgarriyak,
gaude igarriyak,
oyek dirade gauzak
penagarriyak.

4/ Guk premiyo aundirik
ez degu gozatzten,
banua gramatika
errepassatzen,
zenbait malezioso
gaitz da atrasatzten,
zertako ari gera
mingañoak luzatzten?
ona errekusatzten
ez al da usatzten,
askotan da pasatzten,
ez dute eskusatzten,
ez du enpeño onak
gutxi kausatzten.

5/ Miñberatzten asi da
Errekalde ori,
oñazia sentitzten,
ala dirudi,
lenago eman dizka
bedorrek besteri,
dakiyala ari da,
txorua ez da ori,
or dauka Elizegi,
zer biar dit neri?
Juan Jose Udarregi
apenas dan ari
ez diran gauzak esaten
projimuari.

6/ Pellori kargu eiteko
bota du bertsua,
nik ere pronto daukat
erresponsua,
zartubagatik ez dago
Juan Jose mansua,
oraindaño ez det izan
jeniyo falsua,
kontrako sensua,
izan naiz zintzua,
eifñ zuten etxua
bide gabetxua,
egiyak esateko
det deretxua.

7/ Azpeitiko erriyan
eman ziran itzak,
kunplitu izan halira
neretzat ditxak,
esan aisa egifñ ziran,
kunplitutzen gaitzak,
jeniyo bana degu
persona bakoitzak,
orain dira tatxak,
bistan daude mantxak,
esamifña egifñ zak,
baldifñ baderitzak,
gezurrak publikatzen
ez gatxebiltzak.

8/ Nigana etorri zan
zure albistia,
ez nintzan atrebitu
en blanco uztia,
nik ere desiatzen
ori ikustia,
uztargilla zarra ta
Kamiyo bestia,
èskasak eztia,
eifñ zan ajustia,
kantatzeko ustia,
despeida tristia,
posible ez da guztiyak
erakustia.

9/ Esperantza aundiyak
Bernardo guriak,
lenago baginduben
amistadiak,
irurok egiteko
igualdadiak,
biotzez maleziya,
itzez bondadiak,
kejatzen neriak
geyena beriak
pegatzeko idiak
len adiskidiak,
oyek ez dira gizonen
onra-bidiak.

10/ Don Agustin Jauregui
erretore jaunak
iruroi eman zizkun
bere ordenak,
aren aurrian giñan
itz oyek emanak,
errespetatutzeko
gogorra ez danak,
bayezko afanak,
gero ziran lanak,
mudatu egiñ planak,
oyentzat urre danak,
kaskuari atzegiñ
utsikan zanak.

11/ Bertsuetako lana
nolabait egiñ zan,
Bernardo barrena ta
Pello ere juañ zan,
neretzat abisorik
iñondikan etzan,
berri onik etzala
klaro ezagun zan,
bera jetxi nintzan,
plazan an zebiltzan,
Otaño ere an zan
diru esperantzan,
begiyak argi zeuden
Juan Jose nun zan.

12/ Premiyua eman baliyote
agure zarrari,
etzan orrela ibilliko
pareja ori,
itzegiño ziyoten
batak bestiari,
“gure amigua da
Juan Jose Udarregi”,
segitu berari,
aitzakiya ugari,
begiratu obrari,
ederra diruri,
iñor txoro egiten
zertako ari?

13/ Plazan nola zebiltzan
nituben ikusi,
piska bat arrimatzen
nintzayen asi,
uste det zebiltzala
enemigo igesi,
eskubakifñ eldu ta
ezifñ geldi-crazi,
indarrez nagusi,
premiyo ta guzi,
oyek anbat grazi,
ez nunbait merezi,
len baño pobriago
ez gera bizi.

14/ Partilla artu zuben
bakoitzak beria,
korrituban jarriko
zuten neria,
"al dana arrankatu"
zenbaiten legia,
neretzat ez da ona,
oyentzat obia,
ni gizon pobria,
kuadrilla trebia,
premiyo grabia,
izan du jabia,
ni errekusatuba
parte gabia.

15/ Nere arrunkarikan
ez du iñork aditu,
ori esan dubenak
berak baditu,
Alkaiñi zertan eman
milla deskreditu,
biar ez diran gauzak
egiñ ez baditu?
gaizki iruditu,
baju suzeditu,
eziñ det segitu,
niyen obeditu,
zaute, denborak matsak
elduko ditu.

16/ Ezagutu ditugu
oriyen ametsak,
ederki publikatu
dira promesak,
berak erretiratu
ziran interesak,
oyentzat premiyua,
neretzat bajezak,
aziyo eskasak,
bistan dauden gauzak,
egongo dira pozak,
ala dira trazak,
kargubak artuko'itu
goiko Juezak.

17/ Ez dirade portatu
jaun oyek nerekiñ,
izan zan premiyua
artu berekiñ,
ez dute asko gastatu
Juan Joserekiñ,
goiko Juez aundiyak
danak berak jakifiñ,
ari kontuz ekifiñ,
zeifi gabiltzan zikifiñ,
testigubak berekiñ,
bildur naiz arekiñ
ez dala engañatuko
gezurrarekiñ.

18/ Publikatu egiñ da
asunto guziya,
pensamentu orretan
etzan asiya,
madrera jua eta
daukat ikusiya,
zakubaren muturra
ez egon josiya,
nago ikasiya,
ona edo itxusiya,
oyen kutiziya
zer zan notiziya,
Manueltxok egiñgo
du justiziya.

19/ Postura oriyetan
ez dago gauza onik,
Bernardo, ez al dakizu
kulpa dezunik?
bertsolarietatik
orlako personik
ez nuben sinistuko
azalduko zanik,
dollorak izanik,
ez leyaltasunik,
izketa zuzenik
badaukat esanik,
uste nuben zirala
beste gizonik.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Antonio Arrillaga zana, mediku jauna, Elgoibar.)

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Gregorio Mugica zana, Donosti.)

Lorenzo Zulaica-ren eskuz idatzitako bertso-mordoxka, Zarauz: 1/1: juntaer'au; 2/5: parra ederki eitekotan; 7/2: itza; 7/3: kunplitu izan balu; 7/4: ditxa; 7/6: gaitza.

Ta urrena alaxe dio: "Bertso abek dira Jose Bernardori ateratako bueltak Udarregik; gero auen bueltak Pelloren semeak atera zizkan Udarregiri; eta berriz Udarregik Pello aita-semiai atera zizkan; or daude segiran beste ogei bertso (Alegia, bere kuadernuan.)

MIEL ANTON PELLOREN SEMEAREN BERTSOAK

Miel Anton Pelloren semeak erantzun zuan oraingoan. Udarregik bere irugarren jarri-aldian Jose Bernardori eraso zion, da Miel Antonek aren bigarren jarri-aldiari erantzun zion, irakurleak ikusiko duanez. Bañan arek atera zuan kanta-papera ez degu iñon ere arkitu. Zorionez ordea, bertso oyek buruz dakizkian gizon bat topatu degu. Jaun onek ez du nai bere izena emen agertzerik eta ez degu esango. Guztira emeretzi bat bertso omen ziran; berak zekizkianak auek dira:

1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke para,
autan artzen dedala
Usurbildarra,
ori Juan Jose Alkain da
Udarregi zarra,
berak obligatuta
gerade ontara,
orrek daukan gala
eragin nei parra,
beti seta txarra,
ari da egiñala,
apustu egingo nuke
aspertzen dala.

2/ Nik zer esaten dedan
jar zaitez aditzen,
ia arrazoyakin
zeiñ ote gabiltzen,
kulpa gabe ari zera
nere aita mendratzen,
ixilik egotia eztit
barrenak agintzen,
zu gezur kontatzen,
publikuan kantatzen,
bartzarrak tentatzen,
nik ala pentsatzen,
bueltak aditu gabe
etzera libratzen.

3/ Nere aitai jartzeyozu
ez dubela lotsik,
sekula eztizu egin
biar ez dan gauzik,
premiyua eman ziyoten,
arek artu pozik,
zu gauza etziñala ta
gelditua utsik,
ezin bete polsik,
ez bukatzen salsik,
gizonaren trazik
ez daukazu kasik,
orrelakuak eztu
merezi galtzik. (1)

(1) Bertso au Pelloren alaba Mikelak ere bazekian, aldaketa auekin ordea: 3/: sekula egin al dizu; 7: zu gauza etziñalako; 11: gizonaren antzik

4/ Juan Jose, ari zera
zu gezur kontari,
gizon txarrak segitzen
dio setari,
burla egin nai diozu
zuk nere aitari,
mokua zorroztu dala
Pello Errotari,
okeletan lori
ote dago ori,
ez iruitzen neri,
burla egin nai besteri,
ta berak anima erra-
tuba diruri.

5/ Arpegiyaren orde
esanaz mokua,
ez da gero pixtiya
Pello Errotakua,
here jayotzaz ori
Astiasukua,
San Pedroren elizan
bataitutakua,
zure dibujua
ez dago bapua,
mami gabekua,
aula ta plakua,
ia atera zazu
erretratua.

6/ Edozeiñ gauza esanaz
zu aua betian,
zabiltzala uste det
zere kaltian,
parapetorik gabe
ai zera atakian,
erretiratu biarko
dezu nekian,
Pello orain artian
bere parajian
bizi da pakian,
.....
lotsa galdurik ezta
gure tartian.

7/ Aditu itzazu ondo
nik esandakuak,
obra onak badituzue
lenagokuak,
ez dira egokiak
oraindañokuak,
esplikatuko ditu
Miel Errotakuak,
zure antzekuak
gañerontzekuak
klase batekuak,
lasai perpetuak,
zuek zerate lotsa
galdutakuak.

8/ Gure tartian ezta
lotsa galdurikan,
ez gabiltza kreditua
eziñ bildurikan,
egia esateko
ez du bildurrikan,
aditu biaidazu
buelta ederrikan,
Pelloren fabrikan
ezta okerrikan
izan oraindikan,
ona besterrikan,
ezta oraindik sobratu
gure puskarrikan.

9/ Berriz modu orretan
aritzen bazera,
aundiguak entzunda
geldiko zera,
itzegin zazu formal
biar dan klasera,
beste gañerakuan
gizona etzera,
zitalen antzera
Pello burlatzera,
sayatutzen zera
konduta galtzera,
begira zazu ondo
zere etxera.

10/ Premiyua batentzat
zan anuntziyuan,
errenditu biar du
kondiziyuan,
letra oyek etziraden
jarri traiziyuan,
ondo kunplitu zuten
obligaziyuan,
zabiltza sesiyuan,
etziñan zoziyuan
ango funtziyuan
oyen portzियuan,
noizbait sartuko zera
juiziyuan.

11/ Despreziatu dezu
nere aita dotore,
“Pellok gizatasunik
ez du batere”,
gizonak au esatia
akordatuta're!
aurten gelditu dala
Donostira gabe,
zu al zera jabe?
ala bazifia obe,
esango'izut au're:
bajuxio zaude,
zu aña gizon bada
noranaiko're.

12/ Zer esanik eztaukat
Donostiarrentzat,
berak ere apenas
dute onentzat,
oaindaño ondo konpondu
dirade beintzat,
aurrera ere ala
iruditutzen zat,
Juan Josereren salsak
ain dira eskasak,
or zabilta pozak
galtzen konfiantzak,
eskarmentatzen ere
ez gaude errazak.

13/
.....
.....
.....
bide gabe zabilta
sututzen sasiyak,
ontaratu nau zure
atrebientziyak,
kontu itxusiyak,
ortikan asiyak,
ortzak erakutsiyak,
eman gabe utziyak,
tarte ortan dituzu
oyek guziyak.

14/ Zure armoni txarrak
 jarri nau koleran,
 argatikan asi naiz
 kantari prueban,
 gaitzik ez aditu nai
 aita nola deran,
 berak ipiñik nago
 zituben aukeran,
 esan da euskeran,
 zein arrazoiz geran,
 begira paperan
 gezurrik ote dan,
 pentsatu zuretzako
 zenbat kalte dan. (2)

15/

 len zuen onoria
 geyena urritu,
 aukerak baditu
 nai badu segitu,
 bestela gelditu,
 berak disponitu,
 gusto duben aldera
 erresolbitu. (3)

(2) Bertso au Mikela Pelloren alabak eman zidan.

(3) Bertso au danetan azkena omen zan.

BERTSO BERRIAK

1/ Notiziya berri bat
Astiasutikan,
Konportako errota
orretatikan,
Pello aita semiak
biyen partetikan,
beti arrazoi txarra
oyen tartetikan,
ai dira goitikan,
Udarregi betikan,
kantuzko platikan
nor bere aotikan,
Juan Joseri zer diyo
oyengatikan?

2/ Konprendituba dago
oriyen enbita,
gizon zarrarentzako
ai zer konbita!
Pelloren seme orrek
sarrera polita,
zer esperatutzen du
orrela ibillita?
semia ta aita,
nagusitza naita,
ez da konbeni ta
Juan Joserren gaita,
oriyengatik gutxi
kejatzen baita.

3/ Nagusitza gustatzen
Astiasuarrari,
bajezak eman naya
gizon zarrari,
asko sufritu biar
persona txarrari,
ondo esklabotu da
Juan Jose Udarregi,
mutill eder ori
zer ote da ari?
ziplua ugari,
zer biar dit neri?
kontuba duenarekifi
mintzatu bedi.

4/ Migel, zer kontu dezu
Juan Joserekiñ?
okasiyua ematen
al dezu ekiñ?
askotan tokatu naiz
zure aitarekiñ,
oraindaño ez da izan
okerrik gurekiñ,
oraiñ e ez nerekiñ,
baizikan orrekiñ
ori dago zikiñ,
nai badezu jakikiñ,
bistara azalduko da
denborarekiñ.

5/ Juan Jose ibiltzen zan
lagunakiñ prestu,
bakoitzari beria
emanik justu,
iñori pegatziak
Pello oi du poztu,
ala ere nere gisa
ez da aberastu,
binajerak usttu,
naiz erdi berdoztu,
artutzeko esttu,
ematia aztu,
egiñ zuen okerrik
aitortzen eztu.

6/ Semia brokal bota,
kapitana bera,
gu txoruak bagiña
abilla zera,
badakigu nola dan
oyen ibillera,
zer jeniyo dituzten
dakigula gera,
oyen etorrera
artu nai karrera,
eifñ dute sarrera
gezurrez aurrera,
fandangora zatozte
leku txarrera.

7/ Oraindaño izan gera
oyek beziñ fiñak,
tiratu egiten gaitu
nor bere griñak,
billatuko ditugu
aziyo samifiñak,
egiten badirade
ondo esamiñak,
gizon atsegifiñak
daude utsegifiñak
gaizki itzegifiñak
obra txarra egifiñak,
edukatu gabeko
buru ariñak.

8/ Semiak adiña kulpa
badu gurasuak,
eman dizka eskola
kuriosuak,
orren izketak daude
gogotan jasuak,
mudatuko dirade
oraingo pausuak,
ai oyek kasuak,
modu penosuak,
gizon gustosuak,
despreziosuak,
jakinduri gutxiko
orgullosuak.

9/ Oyen itzegitiak
nabarmenak daude,
konprenditzen degunak
arritzen gaude,
zerbait pensatuko da
kalma ez badaude,
arruak asentatzeko
leku onak badaude,
dana libertade,
gaizki esaten trebe,
errespetoz obe,
berak jaun da jabe
persona onak mendratzen
kulparik gabe.

10/ Udarregiren kontra
ogei bertso berri,
ordafiak esperatu
litzake sarri,
tripak asko biar da
patrikadan urri,
paperak artu eta
plazetara korri,
bertso txarrak jarri,
ondo iritzi orri,
biyak erriz erri
or dabilta larri,
pariente guziyen
Josenreguiri.

11/ Udarregi ari dala
mamiyak urritzen,
nere bajezak dira
irakurritzen,
uste ez dala dira
gaitzak etorritzen,
gizona bajatzia
ni ez nau arritzen,
urtiak korritzen,
ajiak berritzen,
diyot igarritzen,
zeiñ ez da jarritzen,
Pello ere ari da
begi gorritzen.

12/ Anima erratuba da
gauza penosua,
jarri dirate onra
peligrosua,
ori esatia ere
etzan prezisua,
Migel Elizegi da
despreziosua,
ez itxurosua.
zer da gurasua?
bera burlosua,
gizon gustosua,
errespeto gutxiko
orgulloa.

13/ Orain ogei bat urte
Udarregi zarrak
junturak ez zituen
oso miarrak,
zartu ta ajiatu
masaillak igarrak,
sujetatutzen gaitu
guztiyok biarrak,
burla eta farrak
Astiasuarrak,
lagun bi bakarrak,
Eliceguitarrak,
oyetatik maiz datoz
arrazoi txarrak.

14/ Bizkarrian badauzkat
makifia bat urte,
irurogei ta zazpi
ez dira aparte,
nere eskastasuna
publikatu dute,
naizen baño eskasago
juzgatutzen naute,
oyek baliente,
daude korriente,
sobresaliente,
burla egiñ dirate,
ez egon banintz sano
sufiziente.

15/ Desafiyo txiki bat
dizutet botako,
ez bazazue konbeni
ez da inportako,
bakoitzak bere obra
paperan jartzeko,
eskribiente bana
biagu ezartzeko,
gero irakurtzeko,
dituzte neurtuko,
bazaute artako
diruba ekartzeko,
zuen kontrariyua
ez da faltako.

16/ Oyetatik asi zan
enredua sortzen,
egia ditugun obrak
dituzte neurtzen,
lenguak baño oberik
ez badute jartzen,
ez dute izango lanik
jokorikan artzen,
ari gera zartzen,
maleziyan sartzen,
jeniyuak txartzen,
gutxi naiz bildurtzen,
ez dira atrebituko
nigana etortzen.

17/ Ez da prezisamente
jokatzeko plaza,
sekretuan broma bat
diteke pasa,
bakoitzak bere obra
egia du lasa,
paperan ezagun da
ona ta eskasa,
emango da traza,
txarrenak pobreza,
onenak grandeza,
konprenditu beza,
orduban jakia da
zein dan jueza.

18/ Gizon aundi oyeri
diyegu itzegiñ,
dakidan aldetatik
ez det utsegiñ ,
guztiyak sufritutzen
ez dago atsegiñ
denboraz korralera
biayet otsegiñ,
piska bat atzegiñ,
deskansatu nadiñ,
oyek ankak ariñ,
burla ta aldegiñ,
disponituba nago
laister zer egiñ.

19/ Gaizki itzegiñ dedala
iñork badu ira,
noiznai tribunalera
egiñgo da jira,
arrazoyak emanaz
elkarri begira,
an indartsuak ere
sujetatzen dira,
artu egiz segira,
badago eskogira,
beñi jakiñ sikira,
ez izan kupira,
keja dana mugitu
nai dan tokira.

20/ Orra bertso berriak
 aita semientzat,
 mereziak dirala
 iruritzen zat,
 lenago berak jarri
 Udarregirentzat,
 ara errespuesta
 nik berriz oyentzat,
 bajezak neretzat,
 gizon zarrarentzat,
 Juan Joserentzat,
 erronkak beretzat,
 sermoya emen dago
 nai duenentzat.

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta de V. Iraola". (Antonio Arrillaga zana, mediku jauna, Elgoibar): au da arkitu degun paper zarrena; 20'garren bertsoa falta du.

Bertso-papera: "Elustondo. — Zarauz". (Segundo Aguirrezabalaga, Azpeitia): aurrekoa bezela, aldaketarik gabe.

Argia-ren puska bat, egunik ageri ez duena (Arrasku-larre, Oyarzun): 1/1: Notiziya berriak; 1/5: Pello aita-semien; 3/11: zipua; 6/1: Semia aurrera bota; 10/2: emeretzi bertso berri; 10/6: patrikaren urri; 16/9: ai gera ezartzen; 16/14: gugana; 18/9: piska bat itxoin; 20'garren bertsoa falta du. (Asieran alaxe dio: Bidani'ko Aristondo'tar Joxe Mari'k bialiak ditugu bertso auek. — T.)

Lorenzo Zulaica-ren eskuz idatzitako bertso-mordoxka, Zarauz: 1/1: Notizia berriac; 1/5: Pello aita semien; 1/14: orrengatican; 3/11: zipua; 6/1: Semia aurrera bota; 9/10: gaizqui esan trebe; 11/5: uste eztala guri; 16/1: Oyengandic;

16/9: ai guera ezartzen; 17/4: dezaque pasa;
18/9: pisca bat ichoguin.

(Onek bakarrik dauka 20'garren bertsoa; ortografia oar auetan azaltzen dan bezelaxe du, baina ez da eskuz-idatzi zarra, txit berria baizik.)

Bukaeran alaxe dio: Udarregi gelditu zan nagusi lau bertsolarien artian. Laurak il ziran, eta bakoitzai errezatu Aita-gure bana beren animan alde.

PELLOREN ANAYAREN BERTSOAK

Juan Kruz Pelloren anayak ere bertsoak atera omen zituan. Aren kanta-papera ere ez degu iñon arkitu; bañan ala esan zigun Pelloren semearen bertsoak eman zizkigun jaun arek berak. Bertso au besterik etzekian:

Orra Pello Errota
Amerikara juan, (1)
sei illabeteko ta
milla duruan,
janetik abundante,
gañera tragan,
.....
.....
onena zeguan
emen Gipuzkuan
euskera klaruan
.....
etzan beti atsegin
aren onduan.

(1) Pello Errota Azpeitiko premlyoaren sesio au sortu ta andik laister joan omen zan Ameriketara.

Pelloren alaba Mikelak esaten du, bere
osaba Juan Kruzek jarritakoetan, puntu
auek zituan bertsoa ere bazala:

jarri erreparuan
besterik dagan,
ederrik botako dik
etorritakuan.

AZPEITIKO PREMIYUENGATIK (1)

1/ Dozenatxo bat bertso
bear ditut bota,
jendiak jakin dezan
nik daukan nota,
obeak asko dira,
ez naiz orren kontra,
baño itzegin nai det
sasoyan nago ta,
or dabil marroka,
al dana zurrupa,
iya jo du arroka,
ori da erropa,
alabatzera nua
Pello Errota.

(1) Ez dakigu bertso auek zeñek jarriak diran. Errenteriko Makazaga-k argitaratutako bertso-li-

2/ Pello, gaizki zabiltzala
aditu det oso,
enteratua nago
au dala kaso,
zuek agure zar bat
egiteko falso,
zeok aundiyaguak
zerate akaso,
premiyua jaso,
polsan sartu preso,
partitzeko manso
denak bertan gazo,
gizonak ez dik bear
pantasioso.

buru batean arkitu ditugu, bañan ez du bertso-
-egillearen izenik jartzen. Daukagun liburuak au
reko orriak falta ditu ta etzayo izenik ageri.

Orio-ko Errikotxia-k jarritako bertsoetan ordea,
17-garren bertsoak onelaxe dio:

Juan Bautista Gaztelu
orra laugarrena,
iñork inkurriyoric
ez du orrena...
nerau bostgarrena...

Gaztelu izango ote da, ba, bertso auen jartza-
ilea?

Ain zuzen ere, Udarregi, Gaztelu ta Errikotxia,
esate baterako alkarren auzoan bizi ziran; ale-
gia, Donostitik Orio bitartean dagoan mendi lu-
ze ortan. Beraz, ez da arritzeko Gaztelu ere Uda-
regiren alde ateratzia.

3/ Juan Jose testigua
du errotaria,
izketako lanian
izer dotoria!
iñon pare gabeko
predikadoria,
konfesiyan ere
badu poderia,
bajatzen ari'a,
juan zayo edadia,
iya erori'a
zeruko gloria,
Azpeitiko apaizen
diretoria.

4/ Beti keñuka zaude
loruaren gisa,
esanaz nagusitzen
zerala aixa,
ori da jayotzetik
eldu zaizun gaitza,
nere lañuak dakar
zuretzat ekaitza,
zuk dezula giltza
erronkaz zabilta,
nai badezu mintza,
orain da agintza,
ez nago ukatzeko
nik nere itza.

3/9: ari'a = ari da.

3/11: erori'a = erori da.

3/12: zeruko gloria = zeruko glorira.

5/ Zu zifiala onena
Donostiyan uste,
amaika duro eder
eman dituzte,
ez daukazu arturik
beste orrenbeste,
alperrik juango zera
berriz ara eske,
or zabiltza triste,
erronka ta naste,
tabernan jai t'aste
ikusten zaituzte,
obiak bagaude gaur
zenbait gazte.

6/ Pello, jokatu dezu
amaika apostu,
kulpa zerorrek eta
zertan zapuztu?
bertsoetako lanak
badu franko kostu,
ontan ezin liteke
iflor aberastu,
zabiltzate justu,
ez iflori ostu,
partitzia aztu,
lotsa asko eztu,
gizon gezurtiyari
mingafia moztu.

7/ Bera baño oberik
ez dala iñun jayo,
tabernaren batian
ixuri zayo,
izan ere egin du
amaika ensayo,
beste bi Goyerriar
arturik soziyo,
gogotik da piyo,
gora nai du iyo,
au dala meriyo
jendia seriyo,
orgullo geyegiak
ez du baliyo.

8/ Zuk badakizu joaten
besteren etxera,
pakian daudenak
endreatzera,
norbaitek ordaintzeko
beldurtzen etzera,
Juan Joxek ixilik
dirua artzera,
gizona zartzera
tristura sortzera
odolak aultzera,
franko bajatzera,
zedorrek len bezela
kapaz al zera?

9/ Pello bertsolariya
oso dotoria,
Juan Jose Ugarte berriz
askoz obia,
bein batian Tolosan
ioyen umoria!
konportaren gañetik
pasa zan baria,
deus ezta guria,
aik dute ploria,
naiz juan edaria
ibiba aguria!
Errekalden daukate
diretoria.

10/ Dibersiyo polit bat
obe degu pasa,
ala ematen diyot
nik nere traza,
taberna-zokuetan
or zabiltza lasa,
guregatik esanaz
ez gerala gauza,
kulpa banu utsa,
zer ote da kausa?
giza-lege motza,
ez gera orren lotsa,
eskojitu lezake
nai duen plaza.

11/ Pello bertsolariya
guztizko pijua,
ez dauka semia're
nolanaikua,
gaztia dalarikan
sona aundikua,
aitak berriz diruri
kasik Jaungoikua,
gizona bapua,
eztago plakua,
izdun galakua,
pare gabekua,
orain Amerikara
omen dijua.

12/ Pello, bertso oriyek
zuretzako dira,
probintziyan egingo
dutenak jira,
gustoz egon ditezke
batzuek begira,
orain sendatuko da
zarraren erida,
jar zazu segira,
artuaz medira,
egin eskojira
nai dezun tokira,
etzaitezela izan
nere kupira.

JOSE AGUSTIN "ERRIKOTXIA"

Jose Agustin Lerchundi Alda Usurbillen jayo zan 1856-garren urtean, Errikotxia deritzayon baserrian.

Orrengatik erantsi zioten "Errikotxia" izen-goitia.

Karlisten gerratea sortuta, bere gurasoekin Frantzira joan zan.

Andik etorri ta Usurbil-ko Egioleta baserrian bizitu zan. Ta andik Orio-ko Muniotara esposatu.

Ontan famili ederra azi, ta bertan il zan 1932-garrengo Azaroaren 21-an, arratsaldeko bostetan, 77 urterekin. (1)

Bere denboran zenbait bertso-paper jarri zituan; baita ere aotik aora bertso ederrik bota.

(1) Errikotxia ta Egioleta baserriak Usurbilko partean daude, kaletik aparte xamar. Mendi-zorrotz ta Igeldo aldera.

Muniota, berriz, Orio-ko partean dago, Kukurri mendiaaren egoaldeko maldan.

Bañan bai jarritako ta bai botatako bertsoen berri, Auspoa-ren beste aleren batean emango da.

Azpeitiko premiyoa zala ta Udarregiren aldeko bertso-paper bat atera zuan. Bertso oyek nola jarri zituan, Mari Joxepa (1) bere alaba zarrenaren aotik jaso genduan bezelaxe adieraziko degu orain emen:

Gure aita, Udarregiren aldekoa zan, aren alde itzegiten zuan.

Oker ez banago, Udarregik berak eskatu zion bertso oyek jartzeko.

Gero, Udarregi hera etorri zan gure etxera, manso-manso, bere bastoya ta guzi.

Aundi bat zan.

Puska batean asnasa artu eziñik egon zan muntto batean exeririk.

Udaberri-asiera zan, ta guk danak, kuadrilla osoa, belar-zelaiko zimaurrak biltzen ari giñan.

Udarregik etzekien irakurtzen, ta Usurbi-lla joan bear izaten omen zuan, berak pentsatutako bertsoak eskribitzeko.

(1) Maria Josefa Lerchundi, Andu baserria, Orio.

Gure aitaren bertsoak inprentan pasiak ziran ta an aritu zitzayon irakurtzen.

Inprentaren utsegifien batzuek ere arkitu zituzten nunbait ta ala esaten zuten tarteka:

—Au inprentaren falta da.

Ume guziak jiran egon giñan ayen kontuak aditzen. Ni nintzan zarrena, ta amar urte besterik ez nuan.

Lenago ez nuan Udarregi ori ezagutzen ta geyago ez nuan ikusi. Andik laister il omen zan.

Ta egun batean, egunsentian irtenda, kanta oyek saltzera joan zan gure aita.

Ta Donostiko Bretxan kanta saltzen ari zala, bere osaba etxean goizeko zortziretan il zalako berria eman zioten.

Orduan etxera bueltatu zan bere paperakin.

Andik aurrera kanta etxetik partitu ziran, ayen eskera iñor etortzen hazan; ta gafiakoak etxean gelditu ziran, paper-pilla galanta.

Lutoa zalako etziguten kantatzen uzten, bañan ikasi nituan alare batzuk, ta aztu ere bai orain.

BERTSO BERRIAK
JOSE AGUSTIN ERRIKOTXIAK
JARRIAK

1/ Bertso bi paratzeko
beatzi puntuban
Errikotxia dago
pentsamentuban,
Jaungoikuak naukala
entendimentuban,
iñor ez det para nai
nik deskontentuban,
obedimentuban,
dedan talentuban,
ez dakit kantuban,
esplikamentuban,
zenbaitek bezelako
fundamentuban.

2/ Aurten bertsolariyak
orguloso daude,
elkarri mokadurik
barkatu gabe,
Pello Errota eta
Bernardo Errekalde,
Udarregiri kantak
ipiñitzen trebe,
bañan au alare
bere itzen jabe,
arrituta gaude,
ari da dotore,
orañ artian dabil
beti bitore.

3/ Urtia franko dauka
orrek bizkarrian,
irurogei ta amar
noski urrian,
oraindikan mingaña
dauka indarrian,
kantatutzen du guztiz
boza ederrian,
gu orren aurrian
erdi bildurrian
puntu baldarrian
itxura txarrian,
laister konpontzen gaitu
bere zarrían.

4/ Bernardo Errekalde
ta Pello Errota
biyak bertsuak jartzen
jaun onen kontra,
kontestatuko diye,
ez diyo inporta,
atxurrerako baño
obia dago ta,
badaduka nota,
mingaña sano ta
guztiyari buelta
beriala bota,
Jainkuak ortarako
egiña da ta.

5/ Enpeñatutzen dira
munduban legia
elkarri billatutzen
eldu-bidia,
guztiyak dadukate
abillidadia,
baiñan bitorioso
beti aguria,
Juan Jose guria
kantari trebia,
deskuido gabia,
predikadoria,
guardatu zayogun
bere onoria.

6/ Azpeitiyan kantatzen
irurak izanak,
frantzesak premiyua
ziran emanak,
Pellok eta Bernardok
arrankatu danak,
geroztikan badira
emen zer esanak,
artako daguanak
eskribitu planak,
Juan Joserren famak
ez daude juanak,
zer abillidadia
austen duanak!

7/ Premiyua emana
omen zan Pellori,
pixka bat partitzeko
beste biyari,
duro batzuek eman
Jose Bernardori,
biyak utsikan utzi
zuten Udarregi,
tristeza ugari
gizagajuari,
ez dala ongi ori
gauzak badiruri,
bafian ez naiz geyago
esaten ari.

8/ Asitzerako itza
zirala emanak
berdin partitutzeko
artzen ziranak,
ala dira izketak
Udarregirenak,
gero aditu ditut
beste oriyenak,
diferente danak,
juzgatutzen lanak,
faltak besterenak,
bentajak berenak,
zer sinistu biar du
ez dakiyenak?

9/ Eziñ geyegi sartu
ni besteren kausan,
orren gañian ez det
nai ezer esan,
irurak portatubak
kantatutzen plazan,
bañon Pello hitore
juzgatu omen zan,
jaun ori grandezan,
bestiak hajezan,
Juan Jose tristezan,
milagrúa etzan,
oyen konpontziyua
ez dakit zer zan.

10/ Igualdadia zuen
nunbait esperatzen,
utsikan etorri zan
desesperatzen,
argatik ekin zion
bertsuak paratzen,
orduko asuntuaz
zerbait deklaritzen
ez da ikaratzen
edo apuratzen,
au ez det dudatzen.
bestiak progatzen,
berriz ere jartzeko
dago zoratzen.

11/ Lenbizi jarri zizkan
Pellori bertsuak,
ark ere errespuesta
kuriyosuak,
bañan orrentzako ez
alain gustosuak,
iruritu zitzaizkan
gezurti osuak,
urrengo mazuak
ez oso gozuak,
sustanziosuak,
Bernardok jasua,
berritu zizkalako
bere kasuak.

12/ Bernardo beriala
kontestatzen asi,
egun asko baño len
ziran ikusi,
despreziyorik ez du
jaun orrek merezi,
sentidubak natural
ditu adierazi,
zertan galerazi?
pozikan erosi,
kontubak ikasi,
ez daude itxusi,
Juan Jose ixildu balitz
ori nagusi.

13/ Juan Joseri etzaizka
beretzat gustatu,
errespuestak ditu
laister prestatu,
arrazoya nork duen
guk nola juzgatu?
batenarekiñ ere
eziñ satisfatu,
elkar maljistatu
edo molestatu,
sakia errestatu,
zorrotz kontestatu,
bata bestien tatzak
manifestatu.

14/ Egondu naiz guztiyen
planari begira,
oraindikan bentajan
Udarregi da,
beste oriyek ere
mutxatxuak dira,
bistara azaldutzen
besteren erida,
oriyen arira
elkarri pelira
egoki salira
Juan Josek segira,
gero ta ederraguak
jartzen ari da.

15/ Gizapire eskasa
nunbait iruritu,
bere larrubak ezin
diyo kabitu,
inork errespuestak
parako balitu,
biziya duen arte
au zefiek gelditu?
aurrera abitu,
asmuak baditu,
ez da oso nagitu,
pozikan segitu,
oraindikan ez diye
nai obeditu.

16/ Orra probintziako
iru bertsolari,
Pello eta Bernardo
ta Udarregi,
elkar inkomodatzen
gezur edo egi,
enpeñatutzen dira
kasikan geyegi,
desonra ugari
bata bestiari,
gaizki dala ori
iruritzen guri,
pakia gauza ederra
egin baledi.

17/ Juan Bautista Gaztelu
orra laugarrena,
iñork inkurriyoric
ez du orrena,
natural juntatuta
labak elkarrena,
pakian kantatzia
gauzik ederrena,
nerau bostgarrena,
iñun dan txarrena,
asteko aurrena,
bestiak urrena, (1)
pozik emango diyet
gonbite bana.

(1) **Bestiak aurrena** jartzen du bertso-paperak. Bañan Errikotxiaren alabak aitaturko okerretatik bat au izango da, ta alaxe bearko dualakoan, **urrena** jarri degu.

18/ Gaztelu ere dago
kantari bikaña,
nun nai luzitutzen du
onenak aña,
memori argiya du,
abilla mingaña,
errespetokua ta
ongi itzegiña,
eztarri klariña
izugarri fiña,
gizon atsegiña
Jainkuak egiña,
kasikan guztiyari
da eragiña.

19/ Pentsatu det gauza oyek
paperan jartzia,
mesere dedalako
eskolatzia,
ez da ongi besteren
kasuan sartzia,
bañan ez nuke naiko
penarik artzia,
inkomodatzia,
edo apuratzia,
guk ez da kintzia
milagro galtzia,
nola ez dakigula
deskuidatzia.

20/ Kanturako beti det
nik afiziyua,
bañan eziñ ikasi
ofiziyua,
ez det egin gustoko
esplikaziyua,
jendiak ariko du
erletaziyua,
aztu leziyua,
periuiziyua,
atrasaziyua,
aren pasiyua,
au da Errikotxiaren
konfesiyua.

21/ Ogei ta bat bertsoan
ni errematera,
etzeguen premirik
alde batera,
jenero abetatik
badabill aukera,
aurten aña sekulan
azaldu ote da?
nik nere tankera
naiz gaizki atera,
txit merke papera
nua ematera,
gusto dubena betor
eramatera.

IKUSI: Bertso-papera. "Imp. de Baroja, San Sebastián". (Joakin Muñoz-Baroja, Donostia.)

BERTSO BERRIYAK
ANTIGUA-TAR BATEK JARRIYAK (1)

1/ Kantuz artu nai luke
askok onoria,
Udarregi, oixen da
bakardadia;
zuregatik mintzatzen
ari da jendia,
etzerade izandu
enredatzallia,
plazetan noblia,
zenbait bafio obia,
memori trebia,
gezurrik gabia,
egia esatia
da askoz obia.

(1) Bertso auek ez dute ez aztarrenik eta ez argirik ematen, kanta auen jartzallea dan "Antigua-tar" ori nor ote dan somatzeko.

2/ Ikusten izan zanak
esan ziran neri,
Azpeitin nola ziran
iru koplari;
Bernardo Otaño ta
Pedro Elicegui,
eta irugarrena
Juan Jose Alcañ ori,
premiyua erori
irutatik biri,
utsik bakar ori,
zeñ da Udarregi,
projimua maitatzeko
lan txarra da ori.

3/ Ni iñor izendatzen
ez nitzaden ari,
gañetik ez bazuten
bertsorik jarri;
gaztiak serbizio
persona zarrari,
zenbat dan parajian
errespetua urri,
edukatu ongi,
burla gabe orri,
gizon bakarrari,
ez gustatzen neri,
nor bere petxubetan
eskuak jarri.

4/ Pedroren seme ori
ez da ondo ari,
bertso berriak jartzen
gizon zarrari;
len ere kontrariuak
badauzka ugari,
goitik sentitzen ditut
zipla bat edo bi,
ez dizu ezer zuri,
baizikan aitari,
konpon bitez ongi,
ez kaso egin orri,
begiratu zayogun
nork beriari.

5/ Pedro, Juan Jose ori
deskantsuan zeguan,
irukiagatikan
zerbait goguan,
bein batez Usurbillen
tentatu zenduan,
ea Azpeitiatik
zer berri zituan,
desaire moduan,
lenguak goguan,
arrazoi galduan
itz egin zenduan,
zertan burla ori egin
ari onduan?

6/ Ori da aintzakotzat
iñor ez artzia,
ez eta projimua
maitatutzia;
tokatzen ez bazitzayon
plaza artan sartzia,
zertako ametitu
kantuz aritzia?
nork bere etxia
governatutzia
askozaz obia,
ez burla egitia,
edozeñek pena du
apartatzia.

7/ Juan Josek pentsa zuben
Azpeitira juatia,
onratutziagatik
gizon-artia;
gaxo pasatu zuben
iya iya urtia,
etzan milagro orri
zerbait ematia,
len lagun maitia,
oso amantia,
orain apartia,
zer gizon-artia!
ezagutua dago
borondatia.

8/ Gizon prestua izan da
Juan Jose Udarregi,
ez diyo gauz aundirik
egitiñ iflori;
ez bazuten tentatu
Usurbillen ori,
agiyan ez zezaken
bertsorikan jarri,
burla egitiñ ugari,
ixill zegoanari,
zefiek eta nori,
zertan orla ari?
nork berak dauzkan tatxak
eman besteri!

9/ Alkarrekin demandan
lai ori graziya!
gizon baten kulpa da
dana guziya;
ustez izanagatik
kantuz nagusiya,
beti ez dezu egingo
nai dezun guziya,
sutu da sasiya,
ez da oraiti asiya,
badu maleziya
al duen guziya,
Juan Jose, artu zazu
pazientziya.

10/ Juan Jose, lana orri
ez egiñ kasorik,
ortik ez datorkizu
gauza erosorik;
gabilitza iñoren ona
eziñ supriturik,
alkar eziñ ikusi
bista degularik,
orrelako lanik
mundu ontan zanik
uste ez nuben nik,
ez dago gauz onik,
zuk ere izan dezu
lagun zuzenik.

11/ Lenago elkarrekin
zan amistadia,
zefiek pentsatu zuben
gauz au egitia?
beti ez da iguala
gorputz-aldartia,
gaztetan izandu du
osasun fuertia,
debil egotia
berak du kaltia,
urtiak juatia,
ori da suertia,
Juan Jose deskantsuan
bizi zaitia.

12/ Antigua-tar batek
orra kantak jarri,
nik txinistatzen dizkat
Juan Jose orri;
sekulan asentorik
ez du erabilli,
orren berri badakit
iñork beziñ ongi,
itz egiten garbi
izan izan da ari,
gauzak badiruri,
begira obrari,
zuria egiya da
ibiba Udarregi!

IKUSI: Bertso-papera: "San Sebastián: Imp. de Baroja". (Jokin Muñoz-Baroja jauna, Donostia.)

FRANZISCO ARZAC ARANA

Alza-ko Amueder deitzen zayon baserri batean jayo zan 1859-garren urteko Abenduaren 1-ean, gaueko amaika t'erdietan. Elizako paperak onela diote: Marcial Francisco de Arzac y Arana. Bañan "Patxiku" edo "Patxiku Mari" esan oi zioten.

Bere auzoan urte askoan neskame zegoen neskaxa batekin ezkondu zan, eta Galantane deitzen zayon baserri batean jarri zan bizitzen.

An urte batzuk pasa ta Apaola baserrira joan zan.

An bizi zala, amagiarrak esan zion obezuela baserria utzi eta fabrika batera lanera joan, eta ark herak billatuko ziola lana. Ala egin zuan.

Donostira joan zan eta an asi zan lanean. Brecha-ko berdura-plaza egiten ere aritu zan. Egunarekin batean asitzen ziran lanean eta illundu arte jarraituaz, ori guzia egunean sei errial irabazteko.

Jayero edo askotan, etortzen zan bere jayotexera bere senideak bisitatzera, eta, Do-

nostian zebillen ezkeru, erderaz ere zenbait itz ikasi zituen, eta gauza aunditzat esaten zituen tarteka itz erderazko oyek.

Bein batean galdetu zioten etxeakoak ia ardoa edo sagardoa nai zuen eran, eta erantzun zuen:

—¡Ardoa! ¡Ardoa! *Al macho viejo poco verde.*

Orrelako erderazko itz oyek, berriz, bere senideai miñ aundia ematen zioten, eta bein batean ala esan zion bere arrebak:

—¡Motell, motell! Ixilik egon adi ire erderazko itz oker oyekin. Kapaz aiz i ire umeairi ere izketa aldrebasa ori erakusteko eta.

Auspoa-ren Txirritaren liburuan (1) azaldu da nola aritu zan bein batean bertsoan Txirritarekin.

Liburu ontan urrena argitaratzen diran bertsoak, 35 urte zituela jarri zituen; eta, berak dionez, Galantaene-n bizi zalarik.

Atzeneko, ogei ta lau urtean Lizarriturry-ren fabrikan egin zuen lana, eta, erretiroa arturik, aurrera ere urte batzuetan bizitu zan (2).

(1) Antonio Zavala, S. I.: TXIRRITA (Bizitza ta bat-bateko bertsoak) Auspoa 18-19.

(2) Emengo berririk geyenak: Jose Ramon Erausquin, Gazteluene, Alza.

BERTSO BERRIYAK

MILLA ZORTZIREUN LAROGEI TA AMA- BOSTGARREN URTIAN ILBELTZAREN OGEYIAN JARRIYAK

1/ Izketako bire bat
jarritzera nua,
len ere ez det izango
estrafiekua,
zein da bertsolariyen
gañetikakua?
Juan Jose Udarregi
Artikulakua,
nere amigua,
kantari fijua,
euskaldun klarua,
pare gabekua,
gustora bizitzeko
etzan jayua.

2/ Deklaraziyo eder bat
biar nuke egin,
nola ibili ziran
oyek Azpeitin,
Bernardo, Errotariya,
Juan Jose, elkarrekin,
inkomodatu ziran
premiyuarekin,
Pello diruakin
soziyokuakin,
ez dudarik egin
nai duenak jakin,
gizonak garbiyago
ezin itzegin.

3/ Bernardo, ari zera
disimulatutzen,
igualian etzala
konformatutzen,
ortarafia elkarrekin
zifiaten ibiltzen,
len ez al dakizute
premiyorik artzen?
baita ere partitzen,
elkar estimatzen,
ala da tokatzen,
orain berriz galtzen,
inozentiak orla
dira engaiatzen.

4/ Konformatuak ziran
ustez elkarrekin,
gizarte eder bat biar
zutela egin,
errenkurarik gabe
zenduten itzegin,
irurak izateko
premiyua berdin,
oyek ondo jakin
zarrari zer egin,
gauza gutxirekin
oinbeste utsegin!
ez metitzia obe
orlakuakin.

5/ Juan Jose Azpeitiyan
Bernardoren galde,
ezagun zan zeuzkala
lagunak maite,
biyotz amablekua
izandu da fuerte,
besterik ere ala
desiatzen luke,
orrenbeste neke,
zentimorik gabe,
gizartia noble
egin bazan obe,
berak ere zerebait
esango luke.

6/ Pelloren desaidiak
gero atzetikan,
"Udarregi, zer berri
Azpeititikan?"
nai dituen pikardiyak
aldamenetikan,
ark ez du aditu nai
arrazoi txarrikan,
gaizki egifiatikan,
egon ixilikan,
ezpazan dirurikan
trago bat berenikan,
Juan Josek etzuen egingo
orlakorikan.

7/ Bernardok ere pronto
zeukan maratilla,
"denbora onian zatoz
premiyo billa!",
ezta izanda ere
irurogei milla,
lenbailen eskuak eman
ura dek mutilla,
bere ustez abilla,
ala izan dedilla,
gero egin partilla,
juntatu kuadrilla,
gizon oyen gustua
kunpli dedilla.

8/ Orlako parajietan
aurren dabilena,
askotan ateratzen
da ongiyena,
Pellok kariñua izan
diruarengana,
argatikan jua zan
alkatiagana,
ateria plana,
nola egin lana,
emateko dana,
soziyuan zana,
ori izango zan an
pasatu zana.

9/ Itzak atera ditue
Azpeitiko urriak,
zer kontatua dauka
beintzat jendiak,
utsa izan balira
ezaguerik gabiak,
irurak korrituak
lagun amantiak,
ur illen kolpiak
ez dira obiak,
jeniyo klasiak,
diruaren gosiak,
beti muturra luze
lotsagabiak.

10/ Orra pasarizua
kantuz deklaratu,
ondo egindakua
gaizki pagatu,
Pello, etzaitezela
geyegi estutu,
mingaiñ ederrarekin
mundua adoratu,
ezpañak dantzatu,
burua kantzatu,
gauza onak gustatu,
aurrian prestatu,
lenago ez dakinak
nola ezagutu?

11/ Nola aritzen ote dan
zenbait bertsolari,
sekulako arrituta
egoten naiz ni,
gizonak esatia
gezurra orren garbi,
Juan Josek soziyuan
etzuela nai jarri,
galdetu berari,
guraso zar orri,
izketa oyen herri
badaki ederki,
ez diye billatuko
mantxikan ari.

12/ Arbi-loriak laister
azalduko dia,
oyek beren denboran
etortzen dia,
obra onak al bada
egin biar dia,
penetan pasa gabe
eternidadia,
gorrotidadia
etsayen katia,
Jaungoiko maitia,
aingeruz betia,
kunpli zagun beraren
borondatia.

13/ Mundu zorua onek
engañatzen gaitu,
orain bizi geranak
lautatik iru,
gurasorikan gaizki
tratatzten badegu,
atal-buruan kana
etorriko zaigu,
ez gaude seguru,
txanda laister degu,
denak il biagu
urte gutxi barru,
nork bere erasua
pasa biagu.

14/ Diferentiak gera
munduan dianak,
lenago illak eta
bizi geranak,
lasaikerira asko
gaude emanak,
emakumiak sobra,
endemas gizonak,
oiturazko lanak
ezan izan onak,
kentzen ditu danak
aitzurra ta palak,
ez dirade ageri
lenago juanak.

15/ Zerbait merezi luke
nere txarkeriyak
lan ontara obligatu
ez nau premiyak,
Bernardo atera bitza
danen azkarriyak,
lenak ere ez dira
ain farragarriyak,
memori argiyak,
sentidu garbiyak,
ederki jarriyak,
elkarren berriyak,
ofiziyo ori du
bertsolariyak.

16/ Orra amasei bertso
eusker a ederrian,
iñor bada konturik
jakin nayian,
Patxiku Marik jarriyak
publikamentian,
ez juzgorikan egin
besteren gañian,
galdetu juatian,
Altzako partian,
bizi naiz pakian
Galantaenian,
gure Jaungoiko Jaunak
nai duen artian.

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja, Constitución, 1 y 2." (Joakin Muñoz-Baroja jauna, Donostia.)

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste ber-
tse asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
**GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAI-
KU.**
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso
asko.
- 5.—P. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZEBURA ta beste bertso
asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).
- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.

- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IRU ZIREN
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**
- 23.—**AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.**
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.
- 25.—A. P. Iturriaga
JOLASAK.
- 26.—Alfonso M.^a Zabala.—A. Larraitz.—Juan Mir
**PERIYAREN ZALAPARTAK. — Melitona'
ren bi senarrak. — Mendibe'tarren larri-
yak. — Utzi bearkol — Gizon bikañak.**
- 27.—Bertsolariak
AZPEITIKO PREMIYUAREN BERTSOAK.



1027912

JB-902

J